

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen erroldak jendaurrean jartzea —2019ko hirugarren hiruhilekoa—

Ura hornitu eta ur zikinak garbitzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasen errolda fiskalak —2019ko hirugarren hiruhilekoari dagozkionak— Uren Udal Zerbitzuan (Antilletako pasabidea, 3A) eta San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea) egongo dira jendaurrean jarrita, hamabost egunez, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten alegazioak egiterik izan dezaten, halaxe ezartzen baitu zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikularekin ildotik.

Jendaurrean jarri beharreko erroldetan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epearen barruan eta beste hilabete batez, hura bukatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Tasa hori ordaintzeko epea 2019ko azaroaren 1etik abenduaren 15era artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 19an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE